




ITTEN BAT


(*) Itten: arrastua, pistia

IPUIÑA

Olabarriko uztarrigaixak



Larraña auzoko Olabbarri baserrixa XX. gizaldixaren erdi inguruan eta gaurko egunian



Askia, albergia eta puxetarrixa ezkerrian; eta uztarrigaixak askaan uretan, eskuman. (Fotografixak: I. Aiaitui, Estenagakua; eta R. Altuna).



Han ikusten dot Askazubiko Domingo, berak hazittako iri pare gaztiarekin Olabarriko estradan behera datorrela. Etxe bururairiño aillegautakuan eupadia jo eta Felixek, soruan arbi-jorran ebillenak, burua jaso eta han fan xako atxintxika ongietorrixa egittera.

-Zer moduz, Domingo?

-Ederki! Hemen ñatok iri pare gazte honegaz etxetik lxiura; lxiutik Koixkarreko eliza ondora; eliza ondotik Drangoestura, eta Drangoestuko gaintxotik goitik behera zuzen hona.

-Ondo dago! Guazen sukaldera, mokautxo bat egittera.

-Estimauta xagok!

Aitor txikiña sukaldeko epelian dago. Eta aittajuna ikusittakuan, barrez hasten da poz-pozik. Aittajunak kiñu bat egitten xao eta amandre Martzeliñek egindako gailleta batzuk eta poltsakadatxo bat gaztaiñerre emun xao disimulan.

Mokaua jan eta gero iri gaziok eskatu eta sartu zittuain ittuer, eta ondoren kanpoko askara fan ziran uztarrigaixa etaratera. Hari zirixa sartu, kateia erantsi eta tarraska eruan euen larraiñeraiño.

-Itzi degigun hemen uztarrigaixa. Datorren astian etorriko da Fermín, Kale Zaharreko uztarrigiña, eta egingo dau bere lana -bota eben Felixek.

Aitor, dana ikusten eguen isil-isilik; konturaketan zan laister hasi biharko zala ittaurrian iri pare barrixokin sorua boldaaketan, aitta Felix atzian ebela akuluagaz: *aida! aida!* esaten.

Aittajuna etxe aldera mobiu zanian, mutikua beragana hurreratu, bi musu emun eta agurtu eben.

-Agur aittajuna, datorren domekan egingo dogu bueltatxo bat Askazubittik.

- Bai, horixe, etorri zatezai! Danbolinkada bat gaztaiña erreko dogu eta hantxe egongo gara gustora kontu-kontari sutonduan. Amandriak eta bixok pozik ikusiko zauegu!

BERBATEGIXA:

Iri=idi; **estrada**=bidia; **arbi-jorra**=atxurragaz arbi-soroko bedarrak kendu; **eskatu**=askatu; **larraiña**=kanpoko atetik sukaldera bittarteko lekua, hau da, baserritako bebarrua; **uztarrigaixa**=uztarrixa egitteko egurra edo anporra, pagua aixkomente; **uztarrigiña**=**uztargillia**=**uztarrigillia**=uztarrixak egitten zittuen langillia; **ittaurrian**= irixen edo behixen aurretik fatia sorua labraitteruzkuan, ganaduok nundik fan bihar diran jakin degixein.



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

EUSKARAZ EGOGI

Fan ahal naiz / fan neike

Gaur egunian erderiaren eragiñez-edo, ahalaria adierazoteko **ahal izan** aditz modala baiño ezta entzuten, bazterrian geraketan dabiltz -KE morfemaz osotutako adizkixak. Hori dala eta, esan biharra dago euskeriak dakon ñabardura funtsezkoa galduaz edo ezkutauaz doiala, ahalaria adierazoteko bi modu horreik esangura desbardiña dakoi eta: **AHAL IZAN** dabilgunian aditzaren ekintza egiaztatuta edo konprobauta dago; **-KE** dakoin adizkixetan, berriz, ahaltasuna/ezintasuna eztago egiaztatuta. Beste modu batera esanda, AHAL IZANek ziurtasuna adierazoten dau, eta -KEdu adizkixak posibilitadía, erregua edo eskaeria, errespetuzko konbittia, abisua edo mehatxua, ustia, ... eta abar, eta horreittan guztietan ahal izate hori eztago probauta.

Ahaleriaren ebaleriaz fijaiteko, irakurri bi herrittar honein arteko alkarrizketia eta saiatu zatez markauta agiri diran aditz forma zuzena(k) aukeraketan:

AUTOMOBILLA EZIN ETARA

Patxi: (1) **Mobiu zeike /mobiu ahal dozu** automobilla? Traban dago eta!

Joxe: Ez ba, orain (2) **eztakot mobitterik / ezin dot mobiu**, kiltza barik nago eta!

Patxi: Ederki! Orduan, (3) **fan zeike / fan ahal zara** etxeraíño eta kiltzia ekarri?

Joxe: Bai, fango nintzake, baiña oraintxe akordau naiz etxeko kiltza barik be banaguela; kiltza danak moltzo baten eukitten dittut eta.

Patxi: Oraintxe egin xuagu ederra! Orduan, (4) **diar egin zeike / diar egin ahal xatzu** etxeko baten bateri automobillaren kiltzia ekarteko?

Joxe: Hori be (5) **ezin xuat egin / ezin neike egin**, ba! Orain ezta iñor etxian, danak hortik zihar dira.

Patxi: Zer egin bihar dogu, ba, orduan?

Bialdu baten bateri whatsapp eta esan kiltzia aguro ekarteko.

Joxe: Bai whatsapp baneko!

Patxi: Hola habil orainddiok! Gaur egunian hori barik (6) **ezin leike munduan ibilli / eztago munduan ibiltterik**. Hartu neria eta diar egin, gehixago luzatu barik.

Joxe: Semiak euki bihar dau whatsapppori, baiña nik eztakot haren numerorik.

Patxi: Hau baltza, gero! Etxakuagu zer egiñik, orduan! Bixon artian obatu eta mobiu egin biharko dogu automobilla.

Joxe: Bai, (7) **ahal bageu! / ahal izan ezkeru**. Guk bixok bakarrik (8) **ezin geike hori mobiu /ezin dogu hori mobiu**.

Patxi: Probau barik (9) **ezin leike jakin /eztago jakitterik**. Probau degigun!

Joxe: Eeeup! Eeeup! Ezta ikararik be!

Patxi: Bixon artian etxaugu ikararik egitten, ez. Garbi dago laguntzia bihar dogula.

Joxe: Luisenian bi edo hiru lagun egongo dira guri lagun egitteko. Baiñoiak, ia baten batzuk ekarten dittuten!

Patxi: Bai, lau lagunen artian obatu ezkeru, samur mobiuko xuagu.

Joxe: Ia, ba, danok batera, heldu! Eeeup! Eeeup! Orainguan, bai, orainguan samur egin txaugu ikara.

Patxi: Astuna zuan madarikatua, baiña azkenian baztarrera (10) **eruan ahal izan xuagu / eruan geike** eta horri esker nik neure autua aparkalekutik (11) **etara neike / etara ahal izango dot**. Ordua zuan!

(Auto barrutik) Gero arte, Joxe, eta orain konpondu hadi heu Luiseneko horreikin!





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

EUSKERIA ABERASKETAN

Baten parra, bi baietz!

Bola-jokuan bada esaera bat trabesak egitteruzkuan kantaitten dana: *Baten parra, bi baietz!* Hauxe esan gura dau: Txirlo bat jo ezkerre, parra trabesa; bi jo ezkerre, ostera, joteilliak irabazi. Posturia aldatu leike, jokatu gura danaren arauera: *bi (edo biren) parra, hiru baietz!*; *hiru parra, lau baietz!* bolalekua zelakua dan eta zenbat txirlo dagozen, Oñatiko San Martinguan sei dagoz, adibidez; beste leku askotan, berriz, hiru. Horregatik, hasieran aittatu dogun esaeria da ezagunena eta ohikuenena. Trabesa ikusle eta bolarixaren artian edo bi ikusleren artian be izan leike.



KONTU KONTARI

Bi anae

Etxe batian bi anae kuarto berian egitten euen lo eta bixetako batek lo egitteko arazuak izaten zittuan, gaberdixan iratzarri eta sonanbulokerixak egitten ibiltten zan. Ondo lo egitten ebenak bestiaren txotxolokerixak ikusten kokoteraiño eguen, eta kasurik be ez otsan egitten.

Gabe batian, eztakit zenbatgarrenez, anaeori iratzarri, jaiki eta hasi xakon lo eguenari diarka, bere ohiari azpittik heltzen otsala:

—*Joxe, Joxe, zer egingo xuat? Zer egingo xuat?*

Joxe ziharo aspertuta eguen holako zirkuak ikusten eta halaxe erantzun ei otsan:

—*Neregatik gura dokena egin egik, uheorri bueltia emuten baxak be!*

Eta bestiak, rau! ohiari heldu eta buelta eragin otsan azpikoz gora jarrixaz.

Jo eben danbatekuarekin etxeko danak iratzarri eta ikusi euen zer pasau zan. Sustuagaz bera be iratzarri egin zan, baiña etzan haundixagorik pasau. Danen artian berriz ohia lehengo moduan jarri eta uherra fan ei ziran danak pake-pakian.

EUSKERAZ EGOGI

Dotsut, eta ez Dotzut

NOR-NORI-NORK motako adizkixen indikatibuan (orain eta lehenaldixan) eta baldintzan **EUTSI** aditza dago aditz-laguntzailliaren erruan edo zuztarrian, eta aditz hori, bai batuan eta baita bizkaiera estandarrian be, 'ts'rekin idazten danez, geuk be halaxe idazten dogu eta ez 'tz'rekin, nahiz eta halaxe agoskau. Gure berbetan 'z' guztiak 's' esaten dogu eta 'ts' guztiak 'tz', fenomeno horri neutralizaziñua esaten xako. Beraz, holaxe idatziko dittugu adizki honeik: *dotsut, dotsuet, notsun, notsuen, otsan, otsain, banotsa, banotsu, balotsa, notsake, notsuke, lotsake...*

Kontuz, gero, bardin esan eta idazten dogun **xat** aditz-laguntzailliarekin, batuko *zait/zaizkit* eta *diot/dizkiot* adizkixak ordezkaketan dittu eta:

Xat= *zait/zaizkit* : *Diru eske etorri xat ulixa* (nor-nori)

Diru eske etorri xat ulixa eta bendixa (nor-nori)

Deutsat > dotsat > tsat > xat= *diot/dizkiot* : *Dirua emun xat ulixari* (nor-nori-nork)

Dirua eta jatekua emun xat ulixari (nor-nori-nork)



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

KONTU KONTARI

Sorgiñerrek

Arantzazuko auzotar batek ez ei xuan sorgiñetan sinisketan eta, *Sorgiñerrek*¹ izena hortik datorrela dixue. Behin *Sorgiñerrek* agertu xakuan, “**hiru milla eta...ez gaizela², baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!**” Eta sorgiñak urten, eta raaa! Eta hurrengo goizian txapela galduta etxian agertu zuan. Arenduikua ei zuan mutil hori.

Eta kustiñua, “**bagazela³, baiña ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!**” Eta hori entzun ebenian e, mekaguen, larrittu dok! Txapela eskuetan, eta txapela galduta aillegau ei zuan etxera. Eta hurrengo goizian:

—*Nora hoia ta... hain goiz ta..?* —“*Txapela galdu ñuan Sorgiñerrek, urten xostain sorgin pilla batek eta... ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!*” gaiñetik kendu ezinka, isildu barik nitxuan hareik.

Hurrengo goizian fan ei zuan sorgiñok egon ziran lekura

eta, han ez ei xakuan, latatxo bat, eta olixo apurren bat zerekin, trapu zahartxo batekin, eta kitto, sorgiñak falta!

Baiña txapela topau ei xuan, han ei xakuan.



¹ Arantzazu auzuan, Azpilleta eta Albitxurizabal baserriaren artian doiana *Arantzazu* errekiarekin bat eign arte.

² gariela = garela

³ bagariela = bagarela

Iturrirra: Sinforoso Madinabeitia. Urruxolako errotakua, 1918-2013. *Ahotsak.com*, edo, *Oñatiko euskeria* liburuko CDan, Urruxola. Moldautu.

BILLATU BERBA HONEIN ANTONIMUAK

- | | |
|------------------------|---------------------|
| 1. Goixan | A. Barrenian |
| 2. Gaiñian | B. Aparte, urrin |
| 3. Goixenian | C. Aldapan, erripan |
| 4. Aurrian | D. Ezkutuan, atzian |
| 5. Parian | E. Eskuman |
| 6. Urrin | F. Azpixon |
| 7. Aurrian | G. Atzian |
| 8. Ezkerrian | H. Hurrian |
| 9. Launian | I. Behian |
| 10. Aldamenian, albuán | J. Ostian |

ESAERA ZAHARRAK LOTU, EZAGUTU ETA EBALI

- | | |
|----------------------------------|--------------------|
| 1. Zelako egurra | A. Nik sinistu ez! |
| 2. Sutara arrimau eta berotu ez? | B. alkarren zordun |
| 3. Esku bakarrak ezin dau | C. halako ezpala |
| 4. Danok gara | D. biharra! |
| 5. Eskolarik onena, | E. txalorik jo |



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

TXISTE KONTARI

Txitxarrua eta berdela

Uda parteko egun baten Oñatiko lagun kuadrilla bat alkartu eta, Ondarru aldera fan ei zan kostako jiria egitteko asmuagaz. Aillegau eta, portuan bueltaka hasi ei ziran, hango girua ikusixaz eta hango usaiña hartuaz, eta halaxe ebiltzela, ikusi euen peskia saltzen andra bat eta...

—Txitxarrua zenbatian dakozu, ba?

—Bost euruan kilua. Oraintxe bertan itsasotik ekarritakua. Fresko-freskua!

—Dedio, bost euro kiluak! Zer xakok, ba, txitxarro batek buztana kendu ezkerok? ikaratuta kuadrillako batek bestiar.

Eta arrain-saltzaillia subia baiño bizixago, harro-usaiña kentzeko, zapla erantzun:

—Hik be zer dakok, ba, buztana kendu ezkerok?



BILLATU BERBA HONEIN SINONIMUAK

- | | |
|--------------|--|
| 1. Belundu | A. Kimatu |
| 2. Etzin | B. 1. Ebaki, zatitu / 2. Zaildu, gogortu |
| 3. Iñausi | C. Bakandu, mehaztu |
| 4. Kurtiu | D. Ilundu (arropa, irina) |
| 5. Soilldu | E. Ireki |
| 6. Mihaztu | F. Mailatu, zehetu |
| 7. Ebagi | G. Etzan |
| 8. Eregi | H. Adarrak ebagi |
| 9. Maspilldu | I. Hazia zabaldu edo sartu |
| 10. Erein | J. Ebaki |

EUSKERAZ EGOGI

*agurtzen naiz, *agurrak, *agur bat

Mezu, ohar, gutun eta abarretan ezta zuzena despeditteko ***agurtzen naiz**, ***agurrak** edo ***agur bat** formulak ebaltia. Erderazko *me despido*, *saludos* eta *un saludo* esapidien kalko hutsak dira, hurrenez hurren.

Hona hemen, adibide zuzen batzuk "agur" berban oiñarrituak:

- **Esker milla eta agur**
- **Begirunez, agur**
- **Agur, lagun**
- **Agur, adiskide**
- **Besterik barik, agur bero bat**
- **Adeitasunez agurketan zaut**
- **Jaso egizu nere agurra**

Formula gehixago be badagoz, jakiña: **besarkada bat**, **ez adiorik**, **muxu haundi bat**, **laister arte**, **hurrengo arte**, **gura dozun arte**... Hainbat kontu aintzat hartuta aukeratuko dogu formula edota konbinaziño bat edo beste: zein dan mezuaren gaixa edo mamiña, zer eragin gura dogun hartzaillarengan agur horrekin, zer konfiantza dogun berarekin, etab.

Agozko berbetan, ostera, oso normala da **saludau** eta **despediu** aditzak ebaltia, bakoitza bere aditz sistemarekin: *ulixa saludau neben* (forma neutrua) edo *ulixa saludau ñuan/ñonan* (hitanua). Baiña, *semiarekin despediu nintzan* edo *semia despediu neben*.



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

KONTU KONTARI

Fan eta etorri kapela gorri

Fan zan gizaldiko hasieran, gutxi gorabehera horren baten, Zubillagako errotako anae bi, mutil gaztiak artian, astia pasaitten euen Bergaran, hango taillertxo batian lan egiñaz ofiziuia ikasten, eta jan eta lo egiñaz apopillo. Irabazten euen apurra apopillotzaia ordainketako enpleaitten euen eta, hala ta be, zorretan geraketan ziran. Astia akabo eta gero, zapatu arratsaldian, hartu bizkarrian zakutxua eta Zubillaga aldera, euren jaixotetxera, oiñez abixaitten ziran, jaixa etxian pasau eta astelehenian, berriz be, lehenengo orduan Bergarako taillerrian lanian hasteko asmuagaz.

Halaxe, ba, zapatu baten, ba ei xoiazan San Prudentzio parian eta han ikusi euen eliza ondoko tabernia eregitta, jentez beteta, danak be giro onian.



Zubillagako errotia

Orduan anae batek bestiarri: — *Hi, geratuko gaittuk trago bat jotera?*

— *Bai! Eztarrix bustitteko gogua baxakuat, baiña!* — erantzun otsan bestiak.

Sartu zittuain eskuak faltrikaran¹ eta bixon artian xemikorik ez; orduan alkarrerri begiratu eta ezer esan barik aurrera jarraitu euen.

Zubillagara aillegautakuan, gozauko zittuain eztarrixok amak emundako afarixarekin; biharko gozau harekin, ze Bergaran irabazittakuarekin jai ekuain.

Hori dok hori, **fan eta etorri kapela gorri!**

¹ Patrikan, sakelan, poltsikoan

EUSKERAZ EGOGI

*Agur bat, *Agurrak

'Agur bero bat' ondo badago, zergatik ez 'Agur bat' edo 'Agurrak'?

"Agur bero bat" oso ebalixa da eta oso ohittuta gagoz agur hori irakurten. Gaiñera, euskera-kontuetan "autoritatetzat" joten dittugun hainbat erakundek euren testu-eredu eta gomendixuetan onartuta dakoi eta pultzaketan daue — "Agur bat" edota "Agurrak" ez legetxe—. Azkenengo honeik, antza danez, eztakoi tradiziñorik eta erdal kutsu nabarmena dakoi.

Amaierako agurra

Idazkixaren hartzailliari zelako formaltasun-mailla dagokixon, halako agurra aukeratu bihar dogu. Amaieria emuteko holako formulak ebalu leike:

Formalak

Adeitasunez, agur
Begirunez, agur
Esker milla eta agur

Neutruak

Horrenbestez, agur
Besterik barik, agur
Jaso egizu nere agurra

Adiskide artekuak

Agur, adiskide
Agur bero bat
Besarkada bat
Ez adiorik

Beste batzuk, informalaquak:

Mezuaren asmua laburketan dauen zerbait aukeratu geike amaieran:

- *Erantzun ahalik eta azkarren, ahal badozu.*
- *Esango dostazu zer irizten xatzun / zer pentsaitten xatzun.*
- *Erantsitako dokumentua ezin badozu eregi, esan.*
- *Eta abar.*



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

KONTU KONTARI



Behixakin araan

Lezesarriko baso kontuak

Lezesarriko andra-gizon batzuk familixarik ez ekuain, eta betik ibiltten ziran basuan, soruan, eurak lehenengo lanian; estee... boldaan eta... betik ibiltten ziran, gabian lana egitten euen, eta goizian jaikitten ziran, ba, auzoko mutillak, Murgikuak eta, joo!

Batek esaten otsan bestiari:

— *Lezesarriko horreikin amorratu eragindda gagozak, betik goizian gu jaikitterako bolda-sailla egindda, eta gero aitta hasarre egoten dok eta ...*

— *Zuena be bai? Baitta guria be!*

Hala ei zan Murgialdain, eta Jargikuan, eta danian. Eta, bueno, pentsau euen behin: “*gizon horri susto bat emun bihar txaugu*” Bi mutil gaztek, batek hartu dau danboliñian brasia eta bestiak hartu dau katia bat, burdi-katia bat, eta, bueno, hi alde batetik eta ni bestetik. Bixak juntau dira eta batak esaten otsan:

— *Judas, Judas!*

Bestiak erantzuten otsan:

— *Zer bihar dau, Barrabas?*

— *Soroan dabillen gizon hori hanketatik helduta infernura tataras!*

Danboliñari buelta eragitten otsan: tarraa! Eta bestia katiakin: ran-ran-ran...!

— *Judas, Judas!*

— *Zer dio, Barrabas?*

Gero, ba, erantzuten eben mendi guztiak:

— *Zer dio, Barrabas?*

— *Horko soruan dabillen gizon horri hanka bittatik helduta infernura tataras!*

Ta behixakin ebillen gizonori, Lezesarrikuori, geldittu da, entzun dau danboliñaren zaratia: tarraa!... eta brasia gorri-gorrixa, eta gabaz. Bestia katiakin. Bixok isil-isillik. Lerakua eta behixak hartu dittu eta etxera, arnasestuka. Etxera fan da ta... andriak:

— *Zer pasaitten xatzu, gizona?*

— *Zer pasaitten xaten? Beste mundukuak etorri dira hona, beste mundukuak, Judas eta, eztakit zein...*

Ohian sartu gizona, eta hiru egunian uhetik jaiki barik. Harrezkero, gabetan sekula ez eben urteten lanera. Hori gure aittajunak kontaitten eben. Pasautakua da!

Iturririx: Murgialdaiko Maritxu Altube Irizar (1929-2014)



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

KONTU KONTARI

*Baba-motorra

Gure denporan badakik zela ibiltten giñan danerako? Baba-motorrian, pedalai eragittekuan. Halakorik etxaguan! Pedalai eragin, eta aurrera!

Geeruago, baiña geeruago, erosi giñuan gasoliña-motorra eta harekin fanda gagozak gu Lizarra alderaiño be, kazara, txakurra hanka artian hartuta.

Baiña horren aurretik, ezkondu eta geero be bai, bizikletan, baba-motorrian guk esaten gotsan moduan, goizian jaiki eta lanera, eguerdixan buelta eta atsaldian berriz, eta jaiegunetan etxeko lanak modututa euki ezkeru, Debaraiño eta Zumaixaraiño be faten gintzuan pedalai eragiñez; hortik etara kontuak bizikleta gaiñian zenbat ibillitakuak garien!



*Baba-motorra: garai batian babia zan oiñarrizko janarixa, orduko "gasoliña"; hortik dator babiaren inddarrez mobitten zan ibilgailluari baba-motorra esatia.

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|--------------------------|---|
| 1. Pinttau | A. Ikasi |
| 2. Ernari egon | B. Erne egon |
| 3. Estudixau | C. Piztu |
| 4. Irakutsi | D. Itxurak egin |
| 5. Argi egon, arlet egon | E. Animalia kumea egiteko egon |
| 6. Bizittu | F. Hurreratu |
| 7. Plantak egin | G. Urrundu |
| 8. Bardinddu | H. Ustea konplitu, esperotako emaitza lortu |
| 9. Honuztu | I. 1. Erakutsi 2. Irakatsi |
| 10. Haruztu | J. Bete, ase |

Lotu espresio honeik bakoitza bere esanguriarekin, ezagutu eta ebalu

- | | |
|---|--|
| 1. ¹ Kiko fatia edo ibilttia | A. Hanka baten gaiñian ibilli edota jolas egittia |
| 2. Atxilipurdi egittia | B. Agua beheruntz begira etzindda jartia |
| 3. Ahuzpez jartia | C. Buruzgain egittia |
| 4. ² Arretxiko eruatia | D. Baten baten sorbalda gaiñian fatia hankak aurrekaldera jarritta |
| 5. Zankárranka, zankarranketan | E. Baten bat bizkarrian eruatia |

¹"Kiko fatia" aditzetik, *arre kiko!* deiza dator

²"Aburritxiko" be ebalten da



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Dekaloguea (I)

Zeuren agobizi!

Euskaldunketan dabilteziñak ez uxaketako jarraibidia

Betik esan izan da Oñati herri euskalduna dala, hori eztago ukaketarik, eta dakon ahalmena izugarria dala, baiña zoritxarrez ahal horren hamarrena be ezta ifintten ikasten dabilteziñen zerbitzura. Normalian kontrakua pasaitten da, bata bestiarri bizkarra emunda bizi gara.

Hona hemen muga horreik apurketako kontseju batzuk:



1. Suabe hartu eta soseguz egin berba.
2. Garbi berba egin, ez agopeian.
3. Pazientzia izan.
4. Lagundu
5. Animau
6. Geuria erakutsi (*agobizi izan zatez*) eta beria ikasteko gertu egon.
7. Erdarazko makuluak ebali, bihar darian.
8. Itzulpenera jo, bihar darian
9. Ez espero goizetik gaberako milagrorik. Segi horretan etsi barik.
10. Eutsi ahalegin horri eta pentsau berezko komunikaziñua denboriagaz ailegauko dala.

Letra saldia (I)

'Ur' errua benetan ugarixa da berbak sortzerunzkuan: berba-alkartuak, eratorrixak, leku-izenak, baserri-izenak, abizenak... zer ezta emuten! Ia, ba, topaitten dittuzun letra salda honetan dagozen hemeretziak.

U	G	A	R	T	E	U	R	B	E	R	O
I	R		U		U	R	A	M	I	L	
U	R	B	E	D	E	I	N	K	A	T	U
R	A		U		A	U	R	B	I	Z	I
B	G	I	I	Z	T	A	K	R	A	H	U
I	E	R	G	T	S	D	U	R	A	T	E
E	N	R	E	L	I	P	I	X	T	R	U
T	R	A	T	A		U	R	B	A	T	U
A	U	B	R	B	U	R	O	I	L	O	M
B		U	U	R	T	Z	A	I	L	L	E
U	H	A	R	U	O	A	D	R	A	R	U



(*) Itten: arrastua, pistia

>> Dekaloguea (II)

Zeu be belarriprest!

Euskaldunakana hurreraketako jarraibidia

Betik esan izan da Oñati herri euskalduna dala, hori eztago ukaketarik, eta dakon ahalmena izugarrixa dala; baiña, zoritxarrez, ahal horren hamarrena be ezta ebalten geure hizkuntzia ikasten edo ezebe ezta xixeifien eskura jarteko. Normalian egunerokuan euskeraz bizitzeko hautua egitten dauenak bidelagunik eztau topaitten hizkuntza aldaketa hori egittek.

Hona hemen egoera horretan dague narendako kontseju batzuk, euki leikien aurreritzi batzuk baztertu eta muga horreik eresteko:



1. Trankil egon, baiña ez lotan.
2. Erne egon: ez itxi belarrixak (belarriprest izan zatez)
3. Eskatu laguntzaia
4. Hasteko, billatu makulu bat: lagun min bat, senideren bat, parkeko aitta-amak, berbalagun bat...
5. Euskaldunai euskeraz egin, eta eskatu euskeraz jarraiketako, faborez.
6. Fan ohiketan bertako euskerara, bere bustidura, laburdura eta entonaziño berezkuetara.
7. Ikasi bertako lexikua eta hasi ebalten
8. Fijau ume txikiñen eta aitta-amen arteko berbetan. Bide horretatik asko ikasiko dozu.
9. Zure inguruan lagundu gura dotsun euskaldunik topaitten badozu, saiatu zatez haren hizkuntza aberatsa ikasten eta jasoten.
10. Bertako hizkeriaren gaiñeko aurreritzi kaskarrak itzi alde batera: **xixaua oso politta da.** Zeu ikasten zabiltzena eta bertakuen ez ifiñi bata bestiaren kontra: bixak dira onak eta alkarrekin komunikaitteko balixo doskue.

Letra saldia (II)

'Ur' errua benetan ugarixa da berbak sortzerunzkuan: berba-alkartuak, eratorrixak, leku-izenak, baserri-izenak, abizenak...zer eztau emuten! Ia, ba, topaitten dittuzun letra salda honetan dagozen hogeta hirurak

O	U		U	U	H	O	L	D	E	U	U	R
T	R	U	R	R	A	N	E	U	U	R	R	U
L	G	U	A	A	I	I	P	R	G	J	M	O
A	E	R	T	U	B	A	E	Z	A	A	A	K
S	L	A	S	N	R	G	R	O	R	U	E	E
R	D	L		D	U	R	U	Z	A	Z	L	T
U	I	D		I		U		O	N	I		A
Z	T	I	A	H	U	A	Z	E	G	R	U	R
U	R	T	S	U	R	B	I	T	A	R	T	E
U	R	Z	U	L	O	N	U	R	G	E	Z	A
M	E	T	A	L	U	R	T	X	A	K	U	R
	U	B	I	D	E	R	U	R	U	D	E	

ERANTZUNAK: Letra saldia (II): ur geldi, ur geza, uraundi, ur fauzi, urats, ur-zozo, meta-ur, uraldi, edur-ur, uholde, urtxakur, erateko-ur, ubide, Urgain, Urbia, Urepel, Urbitate (Ubitarte), urmael, Ursalto, Urzulo, Ugaran, urtsu, uhaiz



(*) Itten: arrastua, pistia

Kontu kontari

Danoi barkatu, bateri izan ezik

Urrusulako amandria bat, azkenetan eguela, hil biharrian, abadia etorri xakon etxera azken oliaduria emun eta zeozer eskaketako edo barkaketakorik ba ete eukan ittaunketara. Amandriak umorez hartu eben ittauna eta holaxe erantzun otsan:

Nik danoiri barkaketan dostet, bateri izan ezik!

Orduan, abadia ezpanak estutuaz buruari eragitten hasi zan amandriak zer botako otsan bilddurrez. Handik apurtxo batera, amandriorek agua zabaldu eta haxe bota eben:

Arregiko aldapiari etxat sekula barkatuko pasau eragin dostan sufrimentu danak!

Abadiak hori entzun ebenian, barretxua bota eta nasaittu ederra hartu eben. Uff!!



Arregiko aldapia

Ezetz asmau

Lotu auzo bakoitza bere jaixarekin eta jaixori ospaketan dan hillabetiarekin (I)

- | | | |
|-------------------|--------------------------------|------------------------------|
| 1. Arantzazu | a. Sanlorentzuak | 1. Agorrian |
| 2. Araotz | b. Santalutziak | 2. Mariatzian |
| 3. Aurrekomendixa | c. Berezkorik ez | 3. Agustuan |
| 4. Berezaio | d. Arantzazuko Amabirjiñiarena | 4. *Bagillian |
| 5. Garagaltza | e. Sanisidruak | 5. Bagillian |
| 6. Garibai | f. Trinidadiaik | 6. Agustuan (gaur egunian) |
| 7. Goribar | g. Sanestebanak | 7. Berezkorik ez |
| 8. Larraña | h. Jesusen Bihotzarena | 8. Abenduan |
| 9. Lezesarri | i. Sanjuanak | 9. *Mariatzian edo bagillian |

*4 = Korpusa zela jausten dan, haren hurrengo domekan.

*9 = Korpusa zela jausten dan, haren aurreko domekan.

Noiz egongo gara? Sanlorentzotan, Santalutzitan, Arantzazuko Amabirjiñiaren egunian, Sanisidruetan, Trinidadetan, Sanestebanetan, Jesusen Bihotzarenian, Sanjuanetan

Sinonimuak

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|----------------------|--------------------------------|
| 1. Larrittu | A. Antza hartu |
| 2. Tentau | B. Miazkatu |
| 3. Arlet egon | C. Erabaki, zirt edo zart egin |
| 4. Igarri | D. Azpian egon |
| 5. Miaztu | E. Estutu |
| 6. Erabagi | F. Preso hartu |
| 7. Mendingon | G. Zirikatu, xaxatu |
| 8. Mihaztu | H. Gorde |
| 9. Atxilotu | I. Erne egon |
| 10. Zainp(e)ian egon | J. Bakandu |

FRANTZUNAK: Lotu auzo bakoitza bere jaixarekin eta jaixori ospaketan dan hillabetiarekin (I): 1d1, 2f9, 3h4, 4b8, 5i5, 6c7, 7e2, 8a3, 9g6
Billatu aditz honein sinonimuak: 1E, 2G, 3I, 4A, 5B, 6C, 7D, 8J, 9F, 10H